



Pedagogia Sistemikoa

Ikuspegi sistemikoak hezkuntza errealitatea begirada zabalago batez ikustea ahalbidetzen digu. Begirada zabalagoa izateak familia-sistema, eskola-sistema, jendarte-sistema, kultura-sistema... kontuan hartzea eskatzen du.

Bide honetatik, CUDEC unibertsitate mexikarrak pedagogia planteamendu berritzaile honen barnean azken hamarkadan garatu duen esperientziatik abiatuta, behin eta berriz ikus dezakegu ikasleek bizi dituzten ikaskuntza-zailtasun gehienek jatorri sistemikoa dutela; eta beraz, ikasleen ikaskuntza-prozesua oztopatzen duten zailtasun horiek bideratzen laguntzea da, hain zuzen, Pedagogia Sistemikoaren lehen helburu nagusia.

Formazioaren Helburua

Formakuntza honen helburua Pedagogia Sistemikoak hezkuntza komunitateari eskaintzen dizkion baliabide eta aukera berrietan trebatzean datza. Ikuspegi sistemikoaren bitartez, eskola eta familiaren arteko ordenak landuko ditugu, ikaslearen inguruan sortzen diren dinamikak aztertuz, bere ongizaterako eta ikaskuntza prozesurako oinarriak sendotuz.

Familia eta eskolaren arteko zubiak erakitzekeo baliabideak landuko ditugu, bakoitzak (irakasle, ikasle, guraso...) gure tokia izan dezagun irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Horretarako ezinbestekoa da eskola eta familiaren arteko elkarlana. Are gehiago, ikasleen ikaskuntza-prozesua arrakastatsua izango bada, bi sistema horiek elkarrekin aritu behar dute; hau da, eskola-sisteman, familiari dagokion lekua egin behar zaio eta, familia-sisteman ere berdin egin behar da eskolarekin. Pedagogia Sistemikoak hezkuntza testuinguru harreman-sare eraldoi baten gisan ikustea ahalbidetzen digu (irakasle-ikasle, irakasle-guraso, irakasle-irakasle, seme-alaba/guraso...).

Bakoitza gure tokian kokatzeak lasaitu eta indartu egingo du ikaslea, eta baita irakaslea ere.

Bideratzaileak

ANGELICA OLVERA (Mexiko).

IÑAKI ARANA OREGI (Euskal Herria).

MIREN ARZAK VESGA (Euskal Herria).

SAIONARA BARRENA VILLA (Euskal Herria).

AMPARO LA MONEDA (Zaragoza).

ikus: www.iananasistemak.com

JOSE ANTONIO GARCÍA TRABAJO (Leon).

MARÍA JESUS RODRIGUEZ (Leon).

JOSE CARLOS PASCUAL (Madril).

ANGÉLICA MALPICA OLVERA (Mexiko).

ARES GONZÁLEZ HUESO (Madril).

1. Maila. Oinarriak

Lehen urtean Pedagogia Sistemikoaren oinarriak landuko ditugu, ikuspegi sistemikotik abiatuta eskolan sortzen diren dinamikak ulertu eta bideratzeko modu integratzaileak landuz

2. Maila. Sakontzea. DIPLOMA

Bigarren urtean, Pedagogia Sistemikoak eskaintzen dituen tresna eta baliabideetan trebatuko gara, mugimendu sistemikoen bitartez bai ikasleek eta baita irakasle, guraso eta beste eragileek bakoitzak dagokigun tokia hartu dezagun hezkuntza komunitatean eta ikaslearen ikaskuntza prozesuan.

Bigarren maila burutzean Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas (UDEC) unibertsitateak "Diploma Universitario en Pedagogía Sistémica" egiaztagiria luzatuko die formazio guztia burutu dutenei.

3. Masterra. Graduondoko MASTER OFIZIALA

Aurreko bi mailak egiteak aukera emango du Master formakuntza ere eskuratzeko (gradoa dutenentzat). Masterra honela osatuko da:

1. Alde teorikoa, ON LINE plataformaren bitartez (bi ikasturtetan zehar)

2. Alde praktikoa eta esperientziala CUDEC unibertsitatean bertan udaran egingo den ikastaro presentzialarekin (uztailak 16tik abuztuak 10era). Guztiarekin, Dr. Emilio Cárdenas unibertsitatearen "Master en Pedagogía Sistémica" titulazio ofiziala eskuratu da.

Programa (1. Maila)

- PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN OINARRIAK. ESKOLA SISTEMA ETA FAMILIA SISTEMA, "ZUBIAK ERAIKIZ".** Iñaki Arana eta Iratxe Vazquez (Euskal Herria). Urtarrilaren 25ean eta 26an.
- PEDAGOGIA SISTEMIKOAK ESKAINTZEN DIGUN BEGIRADA ETA BALIABIDEAK.** Saionara Barrena (Euskal Herria). Otsailaren 22an eta 23an.
- KONPETENTZIA SISTEMIKOAK ETA IKASKUNTZA.TALENTUAREN KOLOREAK.** Angélica Malpica eta Fernando Cañizales (Mexiko). Martxoaren 29an, 30ean eta 31n.
- IKUSPEGI BERRITZALEA IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUAN. BERT HELLINGER-EN FILOSOFIA ETA APORTAZIOAK.** Angélica Olvera (Mexiko). Maiatzaren 24an, 25ean eta 26an.
- JOLASA ETA PSIKOMOTRIZITATEA IKUSPEGI SISTEMIKO AINTZAT HARTUZ.** Amparo La Moneda (Zaragoza). Irailaren 20an eta 21ean.
- ESKOLAN GERTATZEN DIREN GATAZKAK ANTZEMATEN ETA BIDERATZEN.** Jose Antonio Garcia eta M^aJesús Rodríguez (Leon). Urriaren 25ean eta 26an.
- BOKAZIOA ETA AHALMENA PROIEKTU PERTSONALAK ETA PROFESIONALAK BIDERATZEKO. (RESIDENTZIALA, ELKARBIZITZAN)** Miren Arzak eta Iñaki Arana (Euskal Herria). Azaroaren 22an, 23an eta 24an.

Hauetako saio batzuk irekiak izango dira, partehartze zabalagoarekin.

TUTORETZA. Modulu bakoitzaren ondoren, tutoretza saio bat izango dugu. Helburua aurreko moduluan landutakoa finkatzea, eskolako ihardueran sortzen zaizkigun egoera konkretuak lantzea eta zenbait tresnen erabilera trebatzea izango da. Saio hauek aste barruan izango dira, 17:30etik 20:30era.



Programa (2. Maila)

- PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN APLIKAZIOA TRESNA BISUALAK BALIATUZ, MARRAZKIAK ETA IRUDIAK.**
Jose Carlos Pascual (Madril). Urtarrila.
- ESPERIENTZIA PEDAGOGIKOAK ETA DIDAKTIKOAK. FENOMENOLOGIA ETA INTEGRAZIOA.**
Ares Gonzalez (Madril). Martxoa.
- KONPETENTZIA SISTEMIKOAK ETA IKASKUNTZA. TALENTUAREN KOLOREAK.**
Angélica Malpica eta Fernando Cañizales (CUDEC, Mexiko). Apirila
- GORPUTZA, GURE EGOERA EMOZIONAL ETA SISTEMIKOAREN ADIERAZLE.**
Miren Arzak (Euskal Herria). Maiatza.
- IRAKASKUNTZA - IKASKUNTZA PROZESUA IKUSPEGI SISTEMIKOTIK ABIATUTA.**
Angélica Olvera (CUDEC, Mexiko). Ekaina.
- HEZKUNTZA PROIEKTUA. IKUSPEGI SISTEMIKOA CURRICULUMAREN ARLO EZBERDINETAN.**
Jose Antonio García Trabajo (Leon). Iraila.
- HEZITZAILE SISTEMIKOA. NORBERAREN INDIRRETIK LAGUNDUZ ETA IRAKATSIZ.**
Miren Arzak, Iñaki Arana. residentziala. Azaroa.

Programa honetan aldaketaren bat gertatu liteke formakuntzaren garapenerako beharrezkoa ikusiko balitz.



PREZIOA

Lehen urteko ikastaroak 1.260 euro balio du, 160 euroko matrikulaz gain. Matrikula aldeaz aurretik ordainduko da eta moduluen ordainketa berriz, hiru epetan egin ahal izango da: urtarileko lehen asterako (420 euro), apirilko lehen asterako (420 euro) eta uztaileko lehen asterako (420 euro).
Bigarren urtekoak (2. Maila) 1.260 euroko balioa izango du baita ere, eta matrikulak 120 euro. Moduluen ordainketa hiru epetan egin ahal izango da baita ere (lehen urteko epe bereak). Ordainketak egiteko, hona hemen kontu zenbakia: KUTXABANK 2095 5039 90 91 13635729

TOKIA

Bergaran, (Mariaren Lagundia ikastetxean) izango dira saioak. Hirugarren eta bostgarren saioak Donostian egingo dira, seguraski (denboraz abisatuko dugu). Azken modulua, zazpigarrena, erresidentziala izanik, Arantzazun (Oñatin) egingo dugu.

ORDUTEGIA

Ostirala arratsaldean, 17:30etatik 20:30etara. Larunbata 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30etara. 3., 5. eta 7. saioak igande goiza ere, 10:00etatik 14:00etara. Tutoresa saioak euskaraz egingo dira eta gaztelerara ere itzuliko dira, behar izanez gero. Moduloak berriz, gazteleraz izango dira.

Kontaktua eta izen ematea:

Telefonoa: 630 97 68 13 - begiradasistemikoa@gmail.com

www.iaranasistemak.com

Hellinger
sciencia



Pedagogia Sistemikoa

FORMAKUNTZA

Mexikoko Dr. Emilio Cárdenas (CUDEC)
unibertsitatearekin hitzarmenean



1. maila. OINARRIAK
2019 (7 modulu)

2. maila. DIPLOMA
CUDEC unibertsitateak egiaztatua
2020 (7 modulu)

3. maila. Graduondoko MASTER OFIZIALA
Alde teorikoa "on line" plataforman, eta
esperientziala CUDEC unibertsitatean bertan.